

COVID-19 kasuek gora Lasarte-Orian

Urriaren 21era arteko datuen arabera, Osasun Sailak 121 positibo detektatu ditu gure herrian hilabete hasieratik / 7

Zurmailu Zurlanketa elkarteak eta udalak ikasturte honetarako hitzarmena sinatu dute asteen / 2

Atzegi elkarteak 60 urte bete ditu eta sentsibilizazio kanpaina "berezia" aurkeztu du / 6

Ostadar Boleibola taldeak bigarren denboraldiari ekingo dio, Irekiera Txapelketa jokatu / 12

Udalaren 'Guztion kontua da!' kanpaina "zinikoa" dela uste du Aire Garbia plataformak / 4

Euskaraldian norbanako gisa izena emateko beste aukera bat: auzoz auzo ibiliko den IGUNE ibiltaria / 8-9

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak 2021ean ospatuko ditu urteurren bereziak; kirol ekitaldia gogoratu dugu / 16

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean, urriak 25: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



Berriz lanean hasteko prest

2019-2020 sasoi arrakastatsua erreparatu dugu Naroa Furundarena atletarekin / 10

TXINTXARRI

NATUR EKINTZAK
Iriteerak ixirritan eta patinetan, eskalada, mendibuelta eta hipika.

LARUNBATETAN. URRIAK 31. AZAROAK 7, 14, 21 eta 28.
LH3, LH4, LH5 ETA LH6koentzat.
10:30-12:00. Oriarteko patioan elkartuko gara

ANIMA ZAITEZ!

18 euro Ttakuneko Bazkideak | 21 euro ez bazkideak
Egunerako behar den materiala aurretik jakinaraziko da

plaza mugatuak!
aisia@ttakun.eus

Izena emateko: <https://labur.eus/gzknaturekintzak>
Ordainketa: Bizum 020 81 11 42, transferentzia KUTXA BANK ES0120955048181081552351



Agustin Valdivia alkatea eta Zurmailu elkarte kide Manuel Yeregi, hitzarmena sinatzen. TXEMA VALLES

Egurrarekin artelanak egiten jarraitzeko

Lasarte-Oriako Udalak eta Zurmailu Zurlanketa Elkarteak hitzarmena sinatu dute aurtengo ikasturterako. 8.515 euro jasoko ditu elkarteak lokalaren mantenu-lanak ordaintzeko, egur-tailu ikastaroak antolatu eta egindako lanak herriari erakusteko

Txintxarri

Udalak 8.515 eurekin finantzatu du Zurmailuren jarduna aurtengo ikasturtean. Lagunduko dio, besteak beste, lokalaren alokairua eta mantenu-lanak ordaintzen. Zurlanketa elkarteak erakusketa bat egingo du, ikastaroak eskainiko ditu eta udalarentzat tailu bat egingo du.

Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak eta Zurmailu Zurlanketa elkarte kide Manuel Yeregi sinatu dute 2020-2021 ikasturterako lankidetzaren hitzarmen hori. 8.515 euroko diru laguntza jasoko du elkarteak, aurtengo aurreikusita dituen zenbait jardura egin

ahal izateko. Antonio Mercero gunean erakusketa bat egingo dute, azaroaren 5etik 15era. 18:00etan irekiko dituzte ateak egunero.

Alkateak gogoratu duenez, Zurmailu elkarte sortu zen zenbait urtez kultur etxean egindako tailer-ikastaro batetik. Gaur egun, hastapen kursoak Zurmailuko kideek ematen dituzte; bigarren mailakoak, berriz,

AZAROAREN 5ETIK 15ERA ERAKUSKETA BAT EGINGO DU ZURMAILUK ANTONIO MERCERO ARETOAN

irakasle espezializatu batek. Zurlanketa elkartearen izenean hitz egin du Manuel Yeregi, azpimarratuz egurrarekin tailuak egiteak "asebete eta liberatu" egiten dituela kideak.

Astelehen eguerdian adostutako hitzarmenean jasotzen denez, Zurmailu elkarteok herrian zehar zabalduko dute euren ikastaroei buruzko informazioa, eta saioak antolatuko dituzte lasarteoriarrentzat aproposak diren orduetan. Ikastaroak euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dituzte, ez dute hizkera sexista erabiliko eta genero ikuspegia txertatuko dute euren lanetan. Horretara konprometitu dira elkarte kideak.

Lanuzteak egin dituzte Ferrovial Servicios enpresako langileek

Enpresa horrek jarrera aldatu ezean, mobilizazioak "gogortu eta ugaritu" egingo dituzte beharginek

Txintxarri

Ferrovial Servicios enpresako langileek bi orduko lanuztea eta elkarretaratzera egin zuten urriaren 16an Michelin atarian, *Hitzarmen duina orain* lelopean. Lantaldea enpresa ituna negoziatzen ari da

eta enpresaren itxikeriaren aurrean egin zuten protesta. Ez da lehena, pasa den asteko asteazkenean ere beste lanuzte bat egin baitzuten.

Azpikotrata horretan 32 lagunek lan egiten dute, eta

bertako ordezkariak duen LABen arabera, "bere lanaren %100 Michelinentzat egiten dute, Michelingo langileek baino baldintza okerragoan". Enpresak bere jarrera aldatzen ez badu, hemendik aurrera mobilizazioak "areagotuko eta gogortuko" dituztela ohartarazi dute langileen ordezkariak. "Eskulana merkatzeko eta lan-baldintzak okertzeko helburuz ezartzen den azpikontratazio sistemaren adibide garbia da Ferrovialena".

Uraren kalitateari lotutako iruzurra Añarbeko udalerrietan

Sasiteknikari batzuek azterketa faltsuak egiten ari omen dira biztanleen etxeetan, kalitatea probatzeko

Txintxarri

Añarbeko Urak sozietate publikoak jakinarazi du uraren kalitateari lotuta ustezko iruzur bat gertatzen ari dela Añarbe Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan; Lasarte-Oria da kideetako bat.

Sasiteknikari batzuek biztanleen etxeetara deitzen dute, adinekoak diren pertsonen etara bereziki, edo eurengana joaten dira zuzenean, esanez iturriko uraren kalitatea txarra dela eta proba batzuk egitea beharrezkoa dela. Azterketa horiek faltsuak

dira; iruzurgileek emaitza manipulatu horiekin herritarrei ikusarazi nahi diete arriskutsua dela iturriko ura edaten jarraitzea. "Arazo" hori konpontzeko, esaten diete beharrezkoa dela ur hori iragazteko tresneria instalatzea, milaka euro balio duena.

Añarbek gezurtatu egin du uraren kalitatea txarra denik. "Osasungarritasuna bermatuta dago". Jakinarazi du kaltetuak izan direnek erreklamazio bat jar dezaketela Kontsumobideren bitartez.



TXINTXARRI

HAPo planaz, auditorioan

Dozenaka herritar gerturatu dira kultur etxeko auditoriora, Hiri Antolamendu Plan Orokorrari buruzko saio presentzialera. Plan hori idazteko prozesuari ekin dio Lasarte-Oriako Udalak, indarrean dauden Arau Subsidiarioak ordezkatu eta datozen hamabost urteetako udalerrir-eredua zehazteko.

Aurrerapen-dokumentua urriaren 30era arte kontsultatu ahalko da udalaren web orrialdean: <http://www.lasarte-oria.eus/documents/298010/16375701/HAPo-Aurrerakina+-+eu.pdf/f6af0e97-c059-0849-8d8b-41c95fae2f70>.



Ferrovial Servicios enpresako langileek egindako protestetako bat. MICHELINGO LAB



12 eta 26 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute aurtengo Beldur Barik lehiaketan. LASARTE-ORIAKO UDALA

Beldur Barik jarrera, ikus-entzunezkoen bidez

Aurten ere herri mailako hiru sari banatuko ditu udalak Lasarte-Oriako parte-hartzaileen artean. 12 eta 26 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete lehiaketan, eta herriko sari banaketa, azaroaren 26an egingo da kultur etxeko hitzaldi aretoan, ostegunarekin

Txintxarri

Gazteei zuzendutako ikus-entzunezko Beldur Barik lehiaketa martxan da. Antolatzaileek azaldu dutenez, lehiaketaren helburua da emakumeek jasaten duten "bereizkeria-egoerei" aurre egiten dioten neska-mutilen adierazpenak "onartu, baloratu eta bultzatzea".

Lehiaketara aurkezten dituzten ikus-entzunezko lanak errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria matxistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak agertu behar dituztela ere gogoratu dute. "Lanak Beldur Barik jarrera islatu beharko dute, alegia, emakumeen aurkako

indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi beharko dute". Jakinarazi dute, ikus-entzunezko lanen kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainetik, helarazten den mezuaren kalitatea baloratuko dutela.

Adinak eta sariak

12 eta 26 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete lehiaketan, eta hiru kategoriatan banatuko dituzte aurkeztutako lanak. Kategoría bakoitzeko garaileari bere saria banatuko dio udalak.

Lehenengo kategoría (12 eta 13 urteko gazteak): 200 euro. Bigarren kategoría (14 eta 18 urteko gazteak): 200 euro. Hirugarren kategoría (19 eta 26 urteko gazteak): 200 euro.

Azaroaren 5era arte izango da ikus-entzunezkoak aurkezteko aukera eta, Lasarte-Oriako sari banaketa, berriz, azaroaren 26an egingo dute, iluntzeko 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Informazio gehiago nahi duenak Emakumeen Zentrora joan daiteke (Aralar kalea 5). 943 363 958 / 688 683 954 telefono zenbakietara dei dezake, edo emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbidera idatzi dezake.



NEURE KABUZ
GORKA ALVAREZ

Irribarrea

Zutabe hau itxi berri nuen. Azken puntua jarrita. Ordenagailua itzalita eta *Berria* egunkariaren orri digitala ikuskatzen hasi nintzenean, Onintzaren txokoa, izenburu berbera topatu nuen. Irri txiki batek ihes egin zidan momentu hartan, ondorengo barrearen aurrekari. Bakarrik nengoen, inork ez zuen ikusi. Aurpegiaren bidez helarazten ditugun mezuentzat garairik onena ez den honetan, ziur aski, inork ez zuen leku publiko batean ere, nire irribarrearen aztarnarik izango.

Pandemia garaietan faltan botatzen hasi garen gauza txikien zerrenda egiten hasiko bagina, luze xamarra aterako litzaiguke. Nik badut bat faltan izugarri botatzen dudana. Pertsona serioak, hotzak eta buruz burukoan emozioak eta sentimenduak adierazterakoan kamuts izan ohi gara askotan euskaldunak. Izaeraren baitan ere izango delakoan nago.

Ez dut gauza txiki horien zerrendarik egingo, bakar batek eskaintzen dizkigun mezu eta erabilera baizik.

Bikotekidearen konfidantza, irakaslearen onespina, harakinaren agur adeitsua, kalean gustuko duzun pertsona horrek egiten dizun agurra, astelehen goiza alaitzen dizun lankidearen arreta, lagun minaren konplizitatea, kuadrillakoek bakarrik uler dezaketen bromarekiko algarra eta baita ilara batean aurreratuko zaizunaren intentzio txarra, solasaldi politiko bateko mespretxu keinua edota errespetu falta izugarria suposa dezakeena ere izan daitezke nik nabaritu dudana hutsune honen erabilera anitzetako batzuk.

Estrategiak bilatu behar izan ditugu gure gertukoaren aurpegiak interpretatzeko. Begietan edota kopetearen sortzen zaizkien ximurrak, masailen igoera lausoa eta askotan soinua bidezko mezua jaso izan behar dugu benetan aurrean dugunak IRRIBARRE bidez zerbait adierazi nahi zigula ulertzeko.

Faltan botatzen ari naiz irribarrea egunerokoan. Gure aliatu nagusia, musukoa, kasu honetan etsai nagusi bihurtu baitzaigu. Gure musuko azpiko irriek zail dute barrea sortzen besteengan baina saia gaitzen gure barreak muga guztien gainetik helarazteko, irriak erabiltzen. Izan soinua bidez edota beste edonolako estrategia bidez kutsa diezaiogun irribarrea elkarri baina beti ezpainak, ahoa eta hortzak musukoaren azpian direlarik. Egin irria eta sortuko duzu barrea.

solaskide
ELKARREKIN
euskara bizi, erabili

Astindu mingaina!

IZEN EMATEA: URRIAREN 30ERA BITARTE

Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943 37 14 48 • 695 785 389

Antolatzaileak Babeslea

MAiTE
ESTETIKA ARETOA

Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena

Zaindu ezazu zure azala!

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Manikura eta pedikura - Aurpegiako tratamenduak - Mota ezberinetako depilazioak - Solariuma



Okendo plazan egin du agerraldia Aire Garbia plataformak, aste honetan, udalaren 'Guztion kontua da!' kanpainaren inguruko iritzia emateko. TXINTXARRI

Txintxarri

Aste honetan abiatu du Lasarte-Oriako Udalak *Guztion kontua da!* kanpaina. Ahalik eta lasarte-oriatar gehien birziklatzeaz eta hondakinak "behar bezala" bereizteaz sentsibilizatzeko jarri du martxan kanpaina; egitasmo "zinikoa", Lasarte-Oriako Aire Garbia plataformaren iritziz. Astearte iluntzean Okendo plazan elkartu dira kanpainaren aurka agertu, eta Udal Gobernu taldeari eurak kontzientziatzeko eskatzeko.

Lasarte-Oriako birziklapen datuak ekarri dituzte gogora, lehenik, agerraldian. Azaldu dute Lasarte-Oria dela Gipuzkoa osoan gutxien birziklatzen duen herrietako bat: "2019an, hiri-hondakinaren %45a bakarrik bildu zuen gaika, eta Gipuzkoako batz bestekoa, berriz, %54,35ekoa da, beraz, Lasarte-Oria ia hamar puntu azpitik dago".

Boluntarismo kontua ez dela azpimarratu dute: "Ez da beste kontzientziazio kanpaina bat finantzatzeko kontua, ea herritarrek pixka bat hobeto egitera animatzen diren". Onartu dute gaikako bilketa tasa hobetzea "denon" ardura dela, baina ardura horiek ez dituzte maila berean ikusten: "Kudeatzaile txarraren ezaugarria da gaizki egindakoen ardura besteen bizkar botatzea". Gaineratu dute, udalak ez duela hiri hondakinak gaika biltzeko sistema eraginkorrik ezartzen, eta, hortaz, ardura euren dela.

"Kontzientziatu daitezela eurak"

Lasarte-Oriako Udalak aste honetan jarri du martxan herritarrek birziklapenaz kontzientziatzeko 'Guztion kontua da!' kanpaina. "Zinikoa" dela salatu du Aire Garbia taldeak, eta ardurak bere gain hartzeko eskaera egin diote udalari

Azaldu dute baita ere ez dagoela inolako arrazoirik pentsatzeko lasarte-oriatarrek, Hernanikoe, Urnietakoe edo Andoaingoek baino kontzientzia ekologiko handiagoa edo txikiagoa dutenik. Herri horietan, ordea, hondakinaren gaikako bilketa tasak %74koa, %70ekoa eta %63ekoa direla, hurrenez hurren: "Beraz, ez da boluntarismo edo kontzientziazio kontua, sistema kontua baizik". Nabarmendu dute hondakinak gaika biltzeko "sistema eraginkorrek" ezarri dituzten udalerriek, "alkatetzan edozein

ARDURAK BERE GAIN HARTZEKO ESKAERA EGIN DIO AIRE GARBIA TALDEAK LASARTE-ORIAKO UDALARI

alderdi egonda ere", emaitza onak lortu dituztela.

Kontzientzia garrantzitsua da taldearentzat, baina sistemaren eraginkortasuna da "erabakigarria". Horrela, udalari eurak kontzientziatzeko eskatu diote plazan bildutako herritarrek. Hori bai, kontzientziazio Fomento de Construcciones y Contratas (FCC) enpresaren eskutik ez egiteko ere eskatu diote: "Erraustegiaren oligopolioaren partaide interesatuenetakoa da".

"Udalaren kontzientzia falta"

Nabarmendu dute Lasarte-Oria izan dela bere herritarrei hondakinak gaika biltzeko aukera eskaini dien azkenetariko udalerrria, eta behin, aukera eskainita, eskaini zezakeen sistemarik "kaskarrena" eskaini zuela: "Hautatu zuen sistemarik

kaskarrena eta gutxien birziklatzen zuena eta, geroztik, edozein hobekuntza sartzeari espresuki uko egin dio". Adibide bat gehitu diote azalpen horri; azaldu dute Lasarte-Oria birziklatzen dutenei ez zaiela ez hobari ez deskonturik aplikatzen: "Birziklatzen dutenek eta birziklatzen ez dutenek berdin-berdin ordaintzen dute".

Kanpaina "zinikoa"

Horrela izendatu dute udalak martxan jarri berri duen *Guztion kontua da!* kanpaina: "zinikoa" eta bi arrazoi eman dituzte hori argudiatzeko. Batetik, udalak birziklatzearen alde balego bezala egin nahi duela iritzi du Aire Garbiak, eta birziklatze bidean pauso gehiago eman ez izana, "espresuki" erakundeak hala nahi izan duelako izan dela. Bestetik, Lasarte-Oriak



Karpa ibiltaria Aralar plazan. TXINTXARRI

Herriko txoko ezberdinetan, karpa ibiltaria

Astelehen honetan abiatu du udalak *Guztion kontua da!* kanpaina. Okendo plazan egon da karpa ibiltaria, eta asteazkenean, berriz, Aralar plazan.

Datozen egunetan ere, herriko beste zenbait txokotan egongo da:

- Txartel kalea: urriak 29 eta 30.
- Oztaran plaza: azaroak 2.
- Isla plaza: azaroak 3 eta 4.
- Kale Nagusia: azaroak 5 eta 6.
- Zabaleta auzoa: azaroak 9 eta 10.
- Aralar plaza: urriaren 21 eta 28 eta azaroak 11.

"behar beste" birziklatu ez izanaren erantzukizuna lasarte-oriatarren bizkar uzten dutela ere adierazi du plataformak: "Noski, udalak harago joan nahiko luke, baina herritarrek ez daude nahiko kontzientziatuta esango balu bezala". Baina argi dute gauza bat: "Hemen udala da kontzientziatu behar dena eta badu garaia".

Ardura bere gain hartzeko deia

Eskaera zuzen batekin amaitu dute Okendo plazan egindako agerraldia. "Zintzoki jokatu eta behingoz ardurak bere gain hartzea eskatzen diegu udalari". Lur azpiko eta lur gaineko zaborrontzien inguruko eztabaida "ganorabakoetan" denbora ez galtzeko ere galdegina diote: "Horri buruzko txosten teknikoak eztaba daezinak dira eta heldu behingoz birziklatzeko sistema eraginkor bat ezartzeari". Bide batez, zinismo gutxiagorekin jokatzeko eskaera ere egin diote.



Herriko osasun etxearen aurrean egin dute agerraldia Aterpeko merkatariak, Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarteko Boluntarioekin batera. TXINTXARRI

Bularreko minbiziaren aurkako borrokarekin bat

Bularreko minbiziaren aurkako mundu egunarekin bat eginik, gaixotasunari aurre hartzeko borrokan ari direnei babesa erakutsi diete merkatarien elkarteko kideek. Xingola arrosak banatu dituzte bezeroen artean, eta erakusleihoak arrosa kolorez atondu dituzte

Txintxarri

Herriko osasun etxearen aurrean elkartu dira Aterpea merkatarien elkarteko kideak. Bularreko minbiziaren aurkako mundu egunarekin bat egin dute herriko

merkatariak eta babesa agertu diete gaixotasun horri aurre hartzeko borrokan ari diren emakume guztiei. Arrosa koloreko zapiak lepoan eta xingolak jantzita agertu dira

prentsaurrekora. Merkatarien elkarteko presidente Miguel Angel Prietok hartu du hitza eta elkertasuna adierazi dio Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarteari.

Elkarte horrek abiatutako sentsibilizazio kanpainarekin bat egin dutela ere azaldu du, horrela, xingola arrosak banatzeaz gain, komertzioetako erakusleihoak arrosa koloreko zenbait objektuekin beteko dituzte; zapiekin eta puzgarriekin, besteak beste. "Babes eta animo mezua bidali nahi diegu borrokan ari diren emakume guztiei". Lasarte-Oriako 60 komertzioek bat egin dute egitasmoarekin.

Eskaera

Eskaera bat luzatu dute; bularreko minbiziari aurre hartzeko ikerketarekin aurrera jarrai dadila, eta zenbait datu

ere plazaratu dituzte: "Azken sei urteetan, 4.000.000 euro inguru bideratu dituzte, Gipuzkoan, ikerketa onkologikora"

Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarteak martxan dituen zerbitzuen artean, bati egin diote erreferentzia, minbiziarekin gaixo dauden pertsonentzako harrera pisuei. Nabarmendu dute gaixoen eta euren senitartekoen joan-etorriak murrizteaz gain, gastu ekonomikoak ere murrizten dituela zerbitzu horrek.

Beste zenbait datu ere ezagutarazi dituzte. Urtebetean artatutako pertsonak 1.419 izan direla; 3.406 psikologia saio egin direla, eta giza-arloko 2.789 esku-hartze egin dituztela.

Lasarte-Oriako Udalak ere bat egin du bularreko minbiziaren aurkako mundu egunarekin eta *Zurekin beti zure alde* leloa agertzen duen eta xingola arrosa eskegi du Okendo plazako eraikineko balkoian.

Boluntarioak ere ekitaldian

Minbiziaren aurkako Gipuzkoako boluntarioak ere izan dira merkatarien agerraldian, eta ekitaldia amaitu aurretik, eskerrak eman dizkiete egunero-egunero, gaixotasunari aurre hartzen ari diren pertsonekin egiten duten lanagatik. Horiek ere Aterpea merkatarien elkarteari eskertu diote emandako babesa.

HONDAR AHOAK
TELESAIL BERRIA, AZAROAN

1
GURE FIKZIOA LEHENA



Astehenean, Hernaniko Biteri kultur etxean aurketu zuen Atzegi elkarteak aurtengo sentsibilizazio kanpaina. KRONIKA

60 urtez bidean lagun izan dituztenak omenduz

Aurtengo sentsibilizazio kanpaina aurkeztu du Atzegi elkarteak, Hernanin. 'Atzegi 60 urte bidelagunak biltzen' leloa erabili dute kanpaina berria iragarri eta urte horietan guztietan ondoan izan dituzten 'bidelagunak' omentzeko

Txintxarri

Atzegi elkartearen sentsibilizazio-kanpaina martxan jarri du aste honetan. Aurtengoa berezia da, hain zuzen ere, elkarteak 60. urteurrena betetzen duelako. Horregatik "ospakizun" bat ere izango da aurtengo kanpaina elkartearentzat.

60 urtetan ondoan izan dituzten pertsona guztiak omendu nahi ditu Atzegi. Elkartearen ibilbidean lagun izan dituzten *Bidelagunak* balioan jarriko dituzte, baita urte luze horietan zehar, adimen desgaitasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko egindako lan eta borroka ere. "Pertsona horiekin lortu dugu gizartea aldatzea, begirada

aldatzea, aukerak areagotzea eta, azken batean, eskubide asko onartzea". Bestalde, gonbidapen bat ere egin dute kanpaina berriaren bidez; hain zuzen ere, Atzegirekin bat egin eta elkarte babesteko deia luzatu diote gizarteari.

Elkartea martxan jarri zutenetik gauzak asko aldatu direla azpimarratu dute: "Lehen pentsaezinak ziren helburuak lortu dira esparru ezberdinetan; hezkuntzan, egoitzetan, lanean, aisian, oro har, eskubideen arloan, hala nola hezkuntzarako eskubidea, lanerako eskubidea, botoa emateko eskubidea, modu independentean bizitzeko eskubidea, besteak beste". Baina

nabarmendu dute oraindik erronka asko geratzen direla aurretik, eta horiei aurre hartzeko Gipuzkoako gizartearen babesa "ezinbestekoa" dela.

60. urteurrenari keinu eginez, astez aste, 60 astez, Atzegiko protagonistak aurkeztuko dituzte. Horretarako elkartearen web ataria erabiliko dute (www.atzegi.eus/bidelagunak) eta euren esperientzia pertsonalak azalduko dituzte.

2021. urteko abenduan amaituko du Atzegi elkarteak sentsibilizazio kanpaina. Ekitaldi nagusia asteartean egin dute Donostiako Antzoki Nagusian, eta hilaren 29an Beasaingo udaletxean aurkeztuko dute kanpaina.

Plaza Dantza saioekin hasi dira lasarteoriatarrek, asteartean

Sasoeta ikastetxeko gimnasioan ekin diote ikasturte berriari; asteartero izango dira saioak, 20:00etan

Txintxarri

Dantzan amaitu dute asteartea lasarteoriatarrek. COVID-19ak baldintzatu du Plaza Dantza saioen hasiera, baina aste honetan ekin ahal izan diote ikasturte berriko saioei.

Sasoeta ikastetxeko gimnasioan elkartu dira parte hartzaileak lehen dantza saioa egiteko, eta "gustura" aritu direla jakinarazi dio Javi Fernandez de Lezea koordinatzaileak Ttakun Kultur Elkartearen dinamizatzaile Xabier Matxaini.

Dozena bat pasatxo herritar bildu dira lehenengo entsegu saioan, eta animatu nahi dituzte lasarteoriatar gehiago astearteroko saioetan parte hartzera. Ordu eta erdiko saioak izango dira, 20:00etan hasi eta 21:30ak arte.

Oraindik izena eman ez duenik bada, Ttakun Kultur Elkartearen dinamizatzailearekin jarri behar dute harremanetan. Horretarako bi bide dituzte: kultura@ttakun.eus edo 695 78 53 89 telefono zenbakia.

2021. urtean ez da korrikarik izango; 2022ra atzeratu dute

COVID-19-ak eragindako egoera dela eta hartu dute Korrika atzeratzeko erabakia. Horrek "kolpe ekonomiko handia" suposatuko du AEKrentzat

Txintxarri

AEK-k iragarri du Korrikaren 22. edizioa datorren urtera atzeratzea erabaki duela, COVID-19ak eragindako egoera tarteko. "Erabaki latza, euskararen aldeko ekitaldirik jendetsuena eta zirrargarriena ez dugulako orain izango, eta badakigulako euskararen aldeko bultzada ezin dela apaldu", adierazi dute AEK-ko ordezkariak. Korrikazaleak Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzera animatu dituzte.

Korrika atzeratzea ez da erabaki samurra izan AEKrentzat. Pandemiaren transmisioa "ahalik eta gehien" murrizte aldera egingo dute ekimena 2022. urtean, horrek ekonomikoki AEKren euskaltegien lanari bultzada hori ez ematea ekarriko badu ere. "Atzerapenak hutsunea sortuko du, baina Korrika horren garrantzitsua izanik, hobe da baldintza hobe batzuetan egin ahal izatea; ez dugu Korrikaren ordezkari eskas bat nahi".

AEK-ko kideek azpimarratu dute "kalea, bizia eta

mugimendua" behar dituela Korrikak, eta hori Euskal Herri osoko kaleetara ateratzen diren milaka pertsonen ematen diotela. "Denbora gehiago" hartu nahi dute Korrikaren antolatzaileek, ikusteko normaltasun berria nondik nora joango den eta etorkizuna "hobeki" ezagutzeko. "Ondo bidean, guztiok desiratzen dugun Korrika ospatuko dugu 2022. urteko udaberrian".

Bien bitartean, "Korrikazale" guztiak animatzen ditu AEK-ko aurtengo Euskaraldian parte hartzera, ahobizi edo belarriprest izanez.

Inbertsioak areagotzea

Korrika atzeratzea erabaki izanagatik "kolpe ekonomiko handia" jasoko du AEK-k. "Korrikaren sorreratik azpimarratu izan dugun bezala, ezinbestekoa da helduen euskalduntzea bizkortzea eta inbertsioak areagotzea. Administrazioari dagokionez, euskaltegiei bideratutako baliabideak oraindik ez dira nahikoak, urratsak egin badira ere norabide egokian".



Ttakun KEko ordezkariak, 2019. urteko Korrikan lekukoa eramaten. TXINTXARRI

Urriaren 15etik 21era, 48 kasu Lasarte-Orian

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 121 positibo detektatu ditu herrian urria hasi denetik, 5,76 kutsatze eguneko. Azken asteetan igo egin da koronabirusaren intzidentzia EAE erkidegoan, Gipuzkoan bereziki. Neurri murriztaile gehiago ezarriko ditu Eusko Jaurlaritzak

Txintxarri

Egunak joan eta egunak etorri, Lasarte-Orian kasu gehiago detektatzen ari da Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Urriaren 15etik 21era 48 positibo atzeman dituzte, eta 82 azken hamalau egunetan. Bolo-bolo dabil azken egunetan 100.000 biztanleko kutsatze tasa, eta arriskuko herriak kontzeptua ere bai. Osasun Sailak egunero argitaratzen dituen txostenetan kolore gorri eta laranja agertzen dira zenbait herri. 100.000 biztanleko 500 kasu baino gehiago dituztenak dira arriskuko herriak, gorri koloreko zifrak dituztenak. Urriaren 21eko datuei erreparatuta –TXINTXARRI-k edizioa itxi aurretik kontsultatu ahal izan dituen azkenak–,

Gipuzkoan hemeretzi daude. Lasarte-Oria ez dago horien artean, baina ez dago urrutik; tasa hori 435,59koa izan da asteazkenean, laranja kolorekoa. Gipuzkoan azken asteetan koronabirusak izandako bilakaera "kezkarria" dela eta, lurralde historiko horretako ahalak nagusi Markel Olano eta 70 udalerrietako alkateek bilera telematikoa egin dute asteartean. Harreman sozialak "ahalik eta gehien mugatzea" eskatu du ahalak nagusiak.

Zazpi kutsatze asteazkenean

Urriaren 21ean zazpi kutsatze atzeman dituzte gure herrian, bezperan baino bederatzi gutxiago. Urteko hamargarren hilabetea hasi zenetik egun

guztietan detektatu dute gutxienez kasuren bat gurean; orain arte 121 kasu atzeman dira, Osasun Sailaren datu epidemiologikoen arabera. Pandemia hasi zenetik urrian intzidentzia dezente izaten ari da SARS-CoV-2 birusa Lasarte-Orian; bigarren hilabete aktiboena izaten ari da orain, irailaren atzetik –143 kasu– eta abuztuaren aurretik –113 kasu–.

Egoera eskualdean

Beterri-Buruntza eskualdeko sei udalerrietan 52 kasu detektatu dituzte urriaren 21ean: Urnietan hamabost, Andoain hamar, Hernanin bederatzi, Astigarragan zortzi, Lasarte-Orian zazpi eta Usurbilen hiru. Arestian aipatutako tasa horren arabera,

azken hamalau egunetan 100.000 biztanleko zenbait kasu dauden zehazten duenarena, eskualdeko lau udalerriren datuak gorrit agertzen dira Osasun Sailaren txostenetan: Andoain (555,37), Astigarraga (873,79), Hernani (619,60) eta Urnieta (1.357,03). Arriskuko herrien talde horretatik kanpo daude momentuz Lasarte-Oria eta Usurbil, 100.000 biztanleko 500 kutsatze baino gutxiago daukatelako; 435,59 eta 332,38, hurrenez hurren.



Neurri murriztaile gehiago

Koronabirusaren bigarren olatua gero eta handiagoa dela ikusita, Eusko Jaurlaritzak urriaren 18an iragarri zuen neurri murriztaile berriak hartuko zituela SARS-CoV-2 birusaren hedatzea gelditzeko. Hauek dira jakinarazi zituenak: eremu publiko zein pribatuaren pertsonen arteko bilerak sei kidera arte mugatzea; jarduera guztietan edukiera %50era murriztea; ostalariek gauerdian itxi behar izatea tabernak; haurren parkeak 23:00etatik aurrera erabili ahal ezin izatea; elkartzetako jendetsuetan 400 pertsonakoa muga izatea espazio itxietan eta 600ekoa aire zabalekoetan; txoko eta elkarte

gastronomikoak itxia; eta kirol jarduera federatuak ez direnak bertan behera uztea. Lakua zain zegoen EAEko Auzitegi Nagusiak horiek denak berretsi arte, gero EHA Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publikatzeko. Ostegunean auzitegi horrek jakinarazi du atzera bota duela talde bilerak sei pertsona mugatzeko erabakia. Ez da "betebeharra" izango; Eusko Jaurlaritzak gomendatu egin dezake, ez besterik.

Ikusteke dago aurreko paragrafoan zerrendatutako horiek izango diren Lakuak hartuko dituen neurriak, ostegun arratsaldean elkartzeko baitzen LABI Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea batzordea, Iñigo Urkullu lehendakariak deituta, egoera berriz aztertuko. TXINTXARRI-k edizioa itxi duenean bilduta zeuden oraindik.

EAE erkidegoko hiru lurralde historikoetan 1.033 positibo atzeman dituzte urriaren 21ean, horietatik 503 Gipuzkoan. Egun horretan egin dituzten 13.470 PCR probetatik positiboak izan dira ehunetik ia zortzi –%7,7–. 51 pertsona ospitaleratu dituzte asteazkenean, eta 339 daude ingratuta; ZIU unitateetan, 62.



Antonio Mercero aretoan ari dira txertoak jartzen, egunean 300 bat. TXINTXARRI

Gripearen aurkako txertoak

Urriaren 13an hasi da gripearen aurkako txertoen aurtengo kanpaina. Lasarte-Oriatarrak Antonio Mercero aretora joaten ari dira, aurrez hitzordua hartuta, dagokien dosia jartzera. Erizainek TXINTXARRI-ri kontatu diotenez, egunean 300 bat txerto jartzen ari dira, eta minuturo paziente bat artatzen dute. "Leher eginda amaitzen dugu eguna".

Kanpainaren aurkezpenean Osasun sailburu Gotzone Sagarduik jakitera eman zuenez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bi milioi euro inbertitu ditu 558.000 dosi eskuragarri izateko, 2019ko kanpaina baino "heren bat gehiago". Txertoa hartzea 65 urtetik gorako pertsonen, eritasun kroniko bat dutenei eta haurdun daudenei gomendatzen die Osasun Sailak, eurak hartzen baititu arrisku taldeak.

LASARTE-ORIAN

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra



IZENA EMAN!

<https://izenematea.euskaraldia.eu/>

www.euskaraldia.eu



Argazkiko hori izango da datozen asteetan herriko zenbait gunetan ikusiko duzuen bizikleta, IGUNE ibiltaria. Ostegun arratsaldean aurkeztu dute egitasmoa Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik, Ttakun Kultur Elkarteoko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek eta Kultura saileko arduradun Xabier Matxainek.

IZENA EMATEKO LAU AUKERA DITUZU



1 **DIPTIKOA**
bete eta kutxa batean sartu

2 **ONLINE**
<https://izenematea.euskaraldia.eu/>



3 **QR KODE BIDEZ**
Gerturatu zure mugikorra eta izena eman!

4 **IGUNE IBILTARIA**
Gerturatu zaitez izen-emate ibiltarira!

NON EGONGO DA IGUNE IBILTARIA?



KULTUR ETXEA	AZAROAK 2 ASTELEHENA 18:00-20:00	AZAROAK 10 ASTEARTEA 16:00-18:00	AZAROAK 12 OSTEGUNA 18:00-20:00		
KIROLDEGIA	URRIAK 27 ASTEARTEA 18:00-20:00	AZAROAK 3 ASTEARTEA 10:00-12:00	AZAROAK 5 OSTEGUNA 12:00-14:00	AZAROAK 16 ASTELEHENA 16:00-18:00	
AZOKA ANDATZA PLAZA	URRIAK 28 ASTEAZKENA 11:00-13:00	AZAROAK 4 ASTEAZKENA 09:00-11:00	AZAROAK 11 ASTEAZKENA 11:00-13:00	AZAROAK 18 ASTEAZKENA 09:00-11:00	
OKENDO PLAZA	URRIAK 30 OSTIRALA 18:00-20:00	AZAROAK 8 IGANDEA 12:00-14:00	AZAROAK 14 LARUNBATA 12:00-14:00	AZAROAK 19 OSTEGUNA 18:00-20:00	AZAROAK 20 OSTIRALA HASIERA
TREN GELTOKIAN	URRIAK 26 ASTELEHENA 13:00-15:00	URRIAK 31 LARUNBATA 12:00-14:00	AZAROAK 13 OSTIRALA 18:00-20:00	AZAROAK 17 ASTEARTEA 18:00-20:00	

IGUNE ibiltaria herrian zehar ibiliko den bizikleta da. Bost gunetan zehar ibiliko da datozen asteetan: Kiroldegitik, kultur etxetik, Okendo plazatik, Andatza plazako azokatik eta tren geltokitik.

Bertan, izena eman ahalko duzu diptikoa betez, online edo QR kode bidez.


Bizikletarekin batera photocall bat jarriko da eta zure argazkiak egiteko eta sarera igotzeko aukera izango duzu! Ez ahaztu zure sare sozialetan partekatzea!

 @EusMaratoia

 @EusMaratoia

 euskaraldia_lasarteoria

PHOTOCALL-A EGONGO DA, ATERA ARGAZKIA ETA BIDALI GURE SARE SOZIALETARA!



Nerea Eizagirre

Naroa Furundarena Urkola (Lasarte-Oria, 2001) atletak bi aste besterik ez ditu izan atseden hartzeko. Urri hasieran 20 urte azpiko Espainiako txapelketan lehiatu zen eta zilarrezko eta brontzezko dominak lortu zituen. Aste honetan, lanean hasi da berriro ere 2020-2021 denboraldiari begira. Azken urte luze honetako errepasso txikia egin dugu berarekin batera.

20 urte azpiko Espainiako txapelketan bi domina eskuratu zenituen. Denboraldiko helburua bete zenuen?

Bai, gure helburuetako bat bertan dominak lortzea zen eta. Bestea nire marketatik gertu ibiltzea zen eta hori ere bete nuen.

Nola joan zen txapelketa?

Bosgarren jauzian lortu nituen bi dominak. Pixkanaka-pixkanaka joan nintzen, lehen jauziak beroketa izan zirela esan daiteke.

Hala ere, ezberdina izan zen. Ikuslerik gabeko txapelketa izan zen. Pista ere berezia zen, berdea.

Gainera, Oskar Goikoetxea nire entrenatzailea azken momentuan ezin izan zen joan eta ostirala gauean ez genekien zer gertatuko zen. Bakarrik egon ahalko nuen pistan, ama sartu ahalko zen. Berezia...

Gainera, Madril itxia zegoen...

Txapelketa nola egin den ere ez daukat oso argi. Gijonen zen, baina irail hasieran Asturiasek esan zuen ez zela bertan egingo. Federazioak erantzun azkar bat eman eta Madrilen egingo zela jakitera eman zuen. Baina ez zuten non zehaztu.

Txapelketa aurreko asteazkenean hitz egin nuen lagun batzuekin eta haiek esaten zidaten, 'egin ideia ez dela egingo'. Ostegunean, federazioak bidali zigun frogagiri bat bertara joan izateko eta larunbatean bertan ginen eta Madril konfinatua zegoen. Eta azken momentura arte ez genekien egingo zen edo ez. Nik esaten nuen, 'lehiatu arte, ez dut esango lehiatu naizenik'.

Eguraldiari ere aurre egin behar izan zenion...

Nahikoa haize zebilen eta igandean, gainera, oso aldakor zegoen. Momentu batzuetan haizea aldekoa zen, besteetan aurkakoa... Horrek eragin dezake jauzian. Jauzi baliogabea egin edo taulatik oso urrun geratzeko aukera dago. Gainera, markak baliogabetu daitezke haize gehiegi egoteagatik.

"Itxialdiaren ostean, 'ea zer gertatzen den' izan da guztia"

NAROA FURUNDARENA URKOLA ATLETA

Aire zabalean nahiz pistan denboraldi ederra egin du herritarrak. Jauzi probetan domina ugari eskuratu ditu Gipuzkoa, Euskadi zein Espainiako txapelketetan



Naroa Furundarena Espainiako txapelketan lortutako dominetako batekin. OSTADAR ATLETISMOA

Espainiako Txapelketa nagusian ere izan zinen irailean jauzi hirukoitzean lehian. Aurten aukeraketa zorrotza egin dute eta hamabi onenak bakarrik lehiatu dira. Espero al zenuen bertan egon ahal izatea?

Bai eta ez. Kontua da aurreko urteetako markak ere balio zutela txapelketan izena emateko. Aurtengo markak ikusita bi barruan nongoen, baina arazoa zegoen norbaitek aurreko urteko markaren bat aurkeztuz gero.

Horregatik, bazegoen aukera kanpoan geratzeko. Hala ere, hamabiko talde horretan sartzea espero nuen.

Zortziko finalera iritsi zinen eta zazpigarren postuan amaitu zenuen. Nolako esperientzia izan zen?

Ezberdina izan zen. Espainiako txapelketa lau egoitzatan banatu zen eta nire probako momentuan gizonen altuera jauziko proba zegoen bakarrik, pistaren beste puntan. Beraz entrenamendu bat zela zirudien, zeren eta atletak eta entrenadoreak baikinen bakarrik bertan.

20 urtez azpikoa baino arraragoa izan zen. Ez zirudien maila absolutuko txapelketa bat zenik, ez zegoen ikuslerik, ez megafoniarik... 20 urtez azpikoan proba ezberdinak pista berdinean

zeuden eta horrek mugimendua egotea ekartzen zuen, baina absolutuan lehiatu eta listo, etxera. Ez zegoen ezer gehiago.

Aire zabaleko denboraldi berezia izan da aurtengoa...

Proba gutxiago izan ditugu eta tartekatuagoak. Lehen ia astebururo zegoen probaren bat lehiatzeko. Eta nahiz eta ez lehiatu guztietan aukera zenuen. Aurten, berriz, ez zenekien noiz eta non lehiatuko zinen. Eta nahiz eta izena eman, ez zenekien lehiaketarik egongo zen ere. Guztia izan da "ea zer gertatzen den".

Eta aurretik itxialdia egon zen. Nola araman zenuen kirol jardueren eternaldia?

Etenaldian forma ahal nuen gutxien galtzen saiatu ginen eta kalera atera ahal izan ginenean, entrenamenduak hasteko oinarri bat izan eta jarraipena ematea, ez zeretik hasi behar izatea, zeren eta denbora gutxi izango genuela aurreikusten baikenuen. **Gainera, itxialdia dela-eta, pista denboraldia ezin amaitu geratu zineten.** Pena izan zen. Egun batetik bestera guztia bertan behera geratu zen, 20 urte azpiko pistako Espainiako txapelketa barne. **Gainera, marka egitetik nentorren eta sentsazio onak nituen. Baina bat-batean dena moztu zen.**

Maila absolutuko Espainiako Txapelketan, Ourensekin ginenean lagun batek esan zidan, 'aipatzen

da 20 urte azpikoa bertan behera geratuko dela'. Nik ezetz nioen.

Astelehenean Gasteizera ikastera joan eta egunean bertan, esan ziguten klaserik ez zegoela eta online hasiko ginela. Asteartean, entrenatzaera nindoala, iritsi zitzaidan mezua txapelketa bertan behera geratzen zela. Eta bertan nengoelako entrenatu nuen, baina beste gogo batekin, jakinda ez nintzela lehiatuko.

Egoera ikusita onena zen. Ostirala horretan Katalunia itxi zuten eta egoera horretan ezin zen egin.

Baina, bestetik, Espainiako Txapelketa batera lehenengoz parte hartu zenuen.

Hori bai izan zela esperientzia itzela. Lehen aldia nongoen Espainiako jauzilari onenen artean. Gainera, marka ona egin nuen. Pista txikia zen, pista irekian baino batuago dago guztia, giroa ere ezberdina da. Esperientzia berria izan zen.

Aurtengo denboraldiaren ostean, Ostadarreko Atletismo saileko gaztekoentzat erreferente bilakatu zara.

Hori diote, baina ez dakit. Aurten ezin izan naiz hainbeste Michelingo pistan egon eta ez dut harreman askorik izan txikiekin.

Denboran luzatu den denboraldia amaitu duzu. Orain atseden hartu beharko duzu.

Bi aste izan ditut atseden hartzeko eta larunbatean hasi nintzen berriro lanean. Normalean aste gehiago izaten dira, baina ezin dugu asko luzatu. Hurrengo denboraldirako datak zehaztu dituzte behin-behinean eta abendua hasieran probak daude.

Gainera, nik ezin nuen gehiago. Gustura nongoen lehiatzen, baina banuen gogoia bukatzeko. Hamahiru hilabeteko denboraldia izan da aurtengoa. Deskantsatu eta hurrengo denboraldiari begira lana egiteko prest nago.

Zehaztu al duzue helbururik?

Zaila da ezer zehaztea. Aurten, aldaketa batzuk daude txapelketen datetan. 23 urtez azpikoa aurreratutako otsailaren erdialdera. Normalean, absolutu mailako txapelketa da lehena eta gero gure mailako; baina aurten alderantziz izango da.

Ikusiko da egoera nolakoa den ere. Lehiatu ahalko dugun, txapelketak jokatuko diren... Orain ezin da asko zehaztu.

Carbayedak Gipuzkoako maillota jantzi du

Buruntzazpiko Txirrindularitza eskolako kideak junior mailako errepideko Gipuzkoako Txapelketa eskuratu du. Javier Ezenarro Oroitzarreen azken metroetan gailendu da herritarra. Larunbatean, taldekako erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketa jokatu da

Txintxarri

Buruntzazpi eskolako junior mailako txirrindulariek ez dute huts egin Gipuzkoako Txapelketan. Erlojuaren aurkako proba Asier Pozok irabazi bazuen, orain Beñat Carbayedak lortu du errepideko Gipuzkoako maillota.

Larunbatean, urriaren 17an, Javier Ezenarro Oroitzarrea jokatu zen Mendaron. Bertan Gipuzkoako Txapelketa ere zegoen jokoan.

Kurutz Gain poligono industrialean hasi eta 84 kilometroko ibilbidea egin zuten gazteek Elgoibar, Osintxu edo Mutriku igarota. Ibilbideko zailtasunik handiena: Kalbario mendatea izan zen. Bi norabideetan gaintitu behar izan zuten jubenilek.

Beñat Carbayeda lasterketa buru egon zen pelotoian. Ibilbidean zehar hainbat eraso izan ziren eta Kalbario bigarrenez igotzean txirrindulariak sakabanatzen joan ziren. Jaitsieraren ostean, ordea, taldetxo bat osatu zen eta bertatik alde egin duen seiko batek, Lasarte-Oriako txirrindularia barne.

Helmuga aldapan zegoen eta horrek taldea luzatzea ekarri zuen. Txirrindulari guztiek azken



Carbayeda, helmugan. BURUNTZAZPI TX. ES.

ahaleginak egin zituzten helmugara lehen iristeko. Ia marra gainean, Beñat Carbayedak Enekoiz Azparren garaitu zuen probako garaikurra eta Gipuzkoako Txapelketa eskuratu.

Kadeteak, Lazkaon

Egun hortan bertan, Lazkaon, Hesparru proban aritu ziren kadeteak.

Lazkaotik Lazkao mendira zihoan 64 kilometrotako ibilbidea egin behar izan zuten Buruntzazpiko Daniel Fursenko

eta Eneko Aranguren eta garailetik 1:33 eta 2:37 minutura iritsi ziren helmugara.

Taldeko txapelketak

Baina ez da Mendarokoa Buruntzazpi eskolako txirrindulariek Gipuzkoako maillota jantzi ahal izango duten azken aukera. Larunbatean, urriaren 24arekin, Legorretan Gipuzkoako mailako junior eta kadete txirrindulari onenak bilduko dira taldekako erlojupeko probak lehiatzeko.

Eguneko lehen proban, junior mailako gazteak lehiatuko dira. Dena ondo bidean, bertan izango dira Buruntzazpi eskolako juniorrak, Asier Pozo eta Beñat Carbayeda barne. Ostean, kadeteen txanda izango da.

Bestalde, igandean, 9. Zumarragako hiria sari nagusia proba lehiatuko dute junior mailako txirrindulariek.

Porrak

Bestalde, asteartean, Espainiako Itzulia hasi zen Irunen eta Ostadar SKTk lasterketako eta Giroko porrak martxan ditu. Italiako itzuliaren azken etapa igandean jokatu da eta orduan porrako aurtengo irabazleak zeintzuk diren jakingo da.



Buruntzaldeko Ibilbideen eguneko aurkezpena egin zen Lasarte-Orian. TXEMA VALLES

Buruntzaldeko ibilbideak ezagutzeko eguna, igandea

Koronabirusaren pandemia dela eta, moldaketak egongo dira; besteak beste, online parte hartzeko aukera

Txintxarri

Hamahirugarrenez ospatuko dute Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna datorren igandean, HILAK 25. Jarduera fisikoa sustatu eta eskualdeko paisaiak ezagutaraztea xede duen ekimena 08:00etatik 14:00etara luzatuko da.

Parte-hartzaileek natura nahiz kultura aldetik interesgarriak diren lekuak biltzen dituzten bost ibilbide dituzte aukeran: Andoain-Lasarte-Oria, Andoain-Urnieta, Andoain-Usurbil, Lasarte-Oria-Urnieta eta Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga.

Navi Ruta app-aren bidez ibilbideei buruzko informazioa eskura daiteke.

COVID-19aren pandemia dela eta, zenbait egokitzapen egin dituzte pilaketak eta gune arriskutsuak saihesteko, eta halaber, aurten ez da kontrol nahiz anoa punturik izango, ezta

herri arteko autobus zerbitzu berezirik ere.

Horrez gain, online edizioa delakoa ere osatzeko aukera ere izango da. Hala, <https://kirolak.buruntzaldea.eus> webguneko galdetgia bete eta urriaren 25ean ibilbide bat osatzen duten guztiei opari bana emango diete.

Hitzordua

Ostadarreko Ipar Martxa taldeak ekimenarekin bat eginez, Lasarte-Oria eta Aginaga arteko ibilbidea egingo du. Horretarako taldeak hitzordua jarri du, igandean goizeko 08:55ean, Elizatze plazan.

Taldeko arduradunek jakitera eman dutenez, bederatzi kilometrotako ibilbidea izango da, Aginagako Mapil ingururaino. Itzulera egiteko bi aukera eskaintzen dituzte: kostako autobusa hartu edo oinez kontrako bidea egin.



SASKI BELTZA

betikoa

+ Korrikaren katilua



50+5= 55€



SASKI BERDEA

ekologikoa

+ Seaskaren egutegia



60+5= 65€



SASKI ZURIA

berezia

+ D ereduaren haziak



70+5= 75€

egiten duguna gara


Saskien balioaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da.

5€ gehigarriak AEK-ri, Seaskari eta Sortzeni bideratuko zaizkie, Korrika, Herri Urrats, eta Sortzenen jaia ez egiteak eragin dien diru-galera arintzen laguntzeko.

Nafar hegoaldeko uzta

euskarari puzka

URRIAK 24 - AZAROAK 12



errigora.eus



Boleibol taldea, bigarren denboraldirako prest

Irekiera txapelketari hasiera emango dio Ostadar SKTko boleibol taldeak. Lehiaketak azaro amaierara arte iraungo du. 2020-2021 denboraldian, senior mailan lehiatuko da talde urdin-beltza eta beste hiru talderen aurka neurtu beharko ditu indarrak

Txintxarri

Ostadar SKTko boleibol taldeak bere bigarren denboraldia hasiko du asteburu honetan. Asier Acuriolak prestatutako taldeak Irekiera txapelketako lehen jardunaldia jokatu du Zarauzko Lizardiren aurka larunbatean, 16:00etan, etxean.

Boleibol taldeak irailaren 4an hasi zituen entrenamenduak eta astean bitan biltzen da Maialen Chourraut kiroldegian ordu eta erdiko saioak egiteko.

Etenaldiaren ostean, taldea gogo handiekin lanean hasi dela onartu du Asier Acuriola entrenatzaileak. "Gogoz hasi dira lanean eta hori eskertzen da".

Hala ere, zenbait aldaketeei aurre egin behar izan dio taldeak. Hamahiru jokalarik osatuko dute Ostadar Boleibol taldea aurtengo denboraldian eta horietatik bost aurpegi berriak dira.

Acuriolak azaldu duenez, berrietatik bik lehen aldia dute kirolean, baina gainerako hirurek esperientzia dute lehiaketan. "Aurpegi berriek taldearen maila igo eta lehiatzeko gaitasuna hobetuko dute".

Eta hori oso baliagarria izango da taldearentzat 2020-2021 ikasturteko helburu nagusia taldearen lehiakortasuna areagotzea baita. "Txapelketetan dugun lehiakortasuna handitu nahi dugu aurtengo", jakitera eman du talde urdin-beltzeko arduradunak.

Irekiera txapelketa

Lehiakortasun hori neurtzeko lehen proba Irekiera Txapelketa izango da.

Lehiaketa sistemari dagokionez, joan-etorriko liga izango da Irekiera Txapelketa. Lau taldeek sei jardunaldi jokatu dituzte eta lehia azaroan amaitzea aurreikusten da Ostadar SKTko prestatzaileak aurreratu duenez.



Ostadar Boleibol taldeko kideak berriro hasik dira lehiari larunbatean. TXINTXARRI

SEI JARDUNALDIKO IREKIERA TXAPELKETA JOKATUKO DU OSTADAR SKT BOLEIBOL TALDEAK

Aurreko denboraldian junior eta senior taldeen aurka lehiatu zen Ostadar SKT; aurtengo, berriz, senior mailako taldeen aurka jokatu da bakarrik. Horrenbestez, Zarauzko Lizardi, Zumarragako Goierri eta Donostiako Kostkas taldeak izango ditu aurrez aurre Asier Acuriolaren taldeak. Lehen Lizardi izango da larunbatean, Maialen Chourraut kiroldegian.

Txapelketa horretan helburu zehatzik ez duela azpimarratu du boleibol taldeko arduradunak, "Ez dugu helburu zehatzik txapelketan, ez baitauek beste taldeen berri eta ezin dugu zehaztu zein maila duten".

Beraz, Gipuzkoako Txapelketari begira, ikasturteko hasierako lehiaketa horrek gainerako taldeak ezagutzeko lagunduko diela onartu du Ostadar SKTko

entrenatzaileak. Izan ere, guztia ondo bidean, Gipuzkoako txapelketa jokatu hasiko da 2021. urte hasieran Ostadar Boleibola.

COVIDaren eragina

Boleibol ez du COVID-19aren eragina beste kirol batzuk bezain beste jasango. "Protokolo berriak daude partidetan. Baina gure kirola harreman zuzen gutxiokoa denez, ez du eragin zuzena arlo teknikoan," azaldu du Acuriolak.

Egunerokoa, ordea, "besteen antzera" moldatu behar direla onartu du Ostadar SKTko entrenatzaileak. "Gure jokalariek ez dute positiborik eman, baina taldearekin zer ikusirik ez duten harremanak direla eta, zenbait jokalarik berrogeialdia igaro behar izan dute eta horrek entrenamenduak egun batzuek uztea eragin du. Egoera berri honetara ohitu beharko gara".

Hala eta guztiz ere, taldea prest dago denboraldi honi aurre egiteko eta indarrak neurtzeko lehen hitzordu garrantzitsua Lizardiren aurka izango dute larunbatean, urriak 24, Acuriolak zuzentzen dituen jokalariek.



Junior Errendimenduko taldeak garaipena lortu zuen. JOSE ANGEL HIDALGO RICO

3. mailako seniorrari luzapenean egin zion ihes partidak

Partida ona jokatu arren, Endika Marrahik zuzentzen duen taldeak ezin izan du AZ Casa de Riojaren aurka

Txintxarri

Ostadar SKTko 3. mailako talde seniorrak urriaren 18an eman zion hasiera denboraldiari Az Casa de la Riojaren aurka. Nahiz eta partida ona jokatu, luzapenean galdu zuen norgehiagoka Endika Marrahik zuzentzen duen taldeak, 57-64.

Ostadar SKTko prestatzaileak aipatu duenez, "talde ezaguna dugu Az Casa de la Rioja. Alde Zaharra taldea da, baina aurtengo berriarekin parte hartuko du".

Denboraldiko lehen partida izanik, bi taldeek garaipena erdietsi nahi zuten. Hala ere, taldeak baja garrantzitsuekin jolastu zuela jakitera eman du talde urdin-beltzeko entrenatzaileak eta hori jokoa nabaritu zen.

Berdintasuna nagusi

Bi taldeak indartsu atera ziren kantzara. Bi taldeek ongi erantzuten zieten arerioaren erasoei eta hiruzpalau tantoko tartea egon zen batzuetan talde urdin-beltzaren alde, bestetan AZ Casa de la Riojaren alde.

Ostadar SKTk zailtasunak izan zituen area barruan jolasteko eta kanpoko jaurtiketekin ausartu zen, baita hiruko jaurtiketekin ere. Az Casa de la Rioja taldeak, berriz, jokalaririk handi eta indartsuei esker, sarrerak egiten etekina atera zuen, baita poste barruko jokoa ere.

Era honetara, atsedenaldira markagailuan berdinduta iritsi ziren, 27-27.

Bigarren zatian, Ostadar SKTk arazoak izan zituen erasoan Az

Casa de la Riojak 2-3 eta 3-2 zona defentsa egin zuen eta. Hori dela eta, defentsa indartu eta lapurretak egitea lortu zuen talde urdin-beltzak. Baina hiruko marrako saskiratzeak murriztu ziren. "Lehen zatian bost sartu genituen eta bigarren zatian bi soilik", aipatu du Marrahik.

Arerioak area barruan zuen abantailarekin jarraitu zuen amaiera arte. Baina laugarren laurdena amaitzeko bederatzik segundoko faltan zirenean jaurtiketa libreari esker, Ostadar SKTk partida berdindu zuen, 54-54, eta luzapena jokatu behar izan zuten.

Az Casa de la Rioja nagusi izan zen partidaren azken zatian. 3-11ko partziala egin eta garaipena lortu zuen Donostiako taldeak.

Hurrengo bi asteetan atsedena izango du Marrahik zuzentzen duen taldeak, Hala ere, lagunartekoren bat jokatu duela iragarri du entrenatzaileak.

Juniorren garaipena

Bestetik, Junior Errendimenduko taldeak denboraldiko lehen garaipena erdietsi zuen, 63-21.

Erroibide Urbycolan taldearen aurkako partida gogorra aurreikusitako bazuten ere, Ostadar SKTk hasieratik aurre hartu zuen kanpo jaurtiketei esker. Gainera, defentsan sendo ibili zen eta ondorioz 25-5 joan ziren atsedenera.

Hirugarren laurdenean arerioak presioa egin eta hamar tanto egitea lortu zuen. Nekea izan arren, laugarren laurdenean ederki eraso zuten talde urdin-beltzeko jokalariek eta 21-6ko partziala egin zuen garaipena lortzeko.

ZORION AGURRAK



Haitz
Zorionak rockero!!! 6 urte dagoeneko!!! Muxu pila-pila familiaren partetik.



Silvia
Zorionak ama. Guztiok maite zaitugu. Muxu asko familia osoaren partetik.



Eneko
Zorionak Eneko!!! 7 urte bete dituzu! Muxu potolo bat familiaren partetik!



Ailitz
Zorionak maitia, nire bizitzako gauzarik ederrena zara, egun bikaina pasatzea espero dut. 5 muxu haundi. Izugarri maite zaitut. Ama.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostitalean Txintxarri paperean.


Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 23




Larunbata, 24




Igandea, 25




Astelehena, 26




Asteartea, 27



Asteazkena, 28



Osteguna, 29



HILDAKOAK

Eugenio Roncero Merino. Urriaren 21an.
Sebastian Fernandez Cañedo. Urriaren 20an.
Jose Ramon Echeverria Solaberrieta. Urriaren 19an.
Aurelio Garcia Dias. Urriaren 19an.
Daniel Alba Azpeitia. Urriaren 18an.
Manuel Nuñez Martinez. Urriaren 17an.
Esteban Vicente Ramos. Urriaren 16an.

JAIOTAKOAK

Eki Etxauri Alberdi. Urriaren 16an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 23	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 24	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 25	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 26	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 27	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 28	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 29	GANDARIAS	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	8	3					4	
				4	3	7	8	5
	4	5	8					
			4		1	6		3
				3		4	2	
4	3			9				
3			9		6		7	
			3		5	1		
8	9				4			

KOMIKIA



OHARRAK

Katekesia

Katekesiak 2020-2021 ikasturte berriari hasiera emango dio asteburu honetan. Aurten, COVID-19ak eragindako egoera medio, bilereak hilean behin izango direla iragarri dute katekistek.

Urriaren 24an, larunbatean, lehenengo mailako bilera izango da, 10:30etik 11:30era. Lehen hezkuntzako lehenengo mailan (6 urte) dauden haurrek izena eman beharko dute, katekesiko beharrezkoak diren 3 urte pasa ondoren, 9 urtekin lehenengo Jaunartzea hartu dezaten. Bigarren mailakoena, berriz, 12:00etatik 13:00era.

Urriaren azken larunbatean, 31n hirugarren mailako bilera txanda izango da, eta taldea handia denez, bi ordutegi zehaztu dituzte: A-tik G-rako hizkiekin hasten diren abizenak dituzten haurren bilera 10:30etik 11:30era izango da, eta H-tik Z-rako hizkiekin hasten direnak, aldiz, 12:00etatik 13:00era.

Lehenengo bilera horietara gurasoak eta haurrak joan behar direla zehaztu dute, eta ikasturteko egutegia banatuko dute.

Odol ateratzeak

Lasarte-Oriako odol emaileek urriaren 23an dute hileroko hitzordua. Antonio Mercero aretoan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era odol ateratzeak egingo dituzte.

Odola eman nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute 943 317 091 telefonora deituz.

Elkarteko kideek emaile ez diren herritarrek gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.

Errigora

Errigoraren Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina ate joka dago eta AEK, Sortzen eta Ikastolen elkartearekin elkarlanean egiten dugun kanpaina honetan Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak eskatzeko epea larunbat honetan zabalduko da eta azaroaren 12an itxiko dute.

Aurten berrikuntza bat dakarte: bi saski eskaini beharrean hiru eskainiko dituzte: Beltza (klasikoa) 50 euroren truke; Berdea (ekologikoa) 60 euroren truke eta Zuria (Berezia) 70 euroren truke. Eskaerak online egin behar dira <https://www.errigora.eus/euskarari-puzka-2020> atarian.

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313/bentley.ma@gmail.com

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Etxea behar da lasarten bizi desn familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

ESKUTITZA

Anbulatorioko kartel bat dela-eta

Txomin Etcheberria nauzue, aspaldian Lasarten bizi ez dena. Aurreko aste honetan, aitari lagunduz, ambulatiora joan nintzen eta ondoan doakizuen argazkia atera nuen. Ikusiko duzuenez sarrerako letreroaren gaikaldean bi idazki hauek nere arreta piztu zuten:

Euskaraz: Bezeroak Atenditzeko Eremua

Erderaz: Area de Atención al Cliente

Zer eroatera doaz-goaz ba?

Nere ustez cliente-bezeroa hitza, arlo komertzialean erabiltzen da salerosketa ematen den eremuan. Iruditzen zait osasun etxeetara joaten garenean, ez garela osasuna eroatera joaten. Beraz proposatuko nuke cliente jarri ordez paciente jartzea. Euskaraz, berriz, bezeroak jarri ordez "pazientea" jartzea.



ESKELA


ESKELAK JARTZEKO:

646 82 44 66

[edo PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS](mailto:edo.PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS)

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzailak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoltz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose
Lanchas, Iñigo Garcia eta Igone
Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 23

HERNANI Jardunaldia

Beterrri-Buruntzaldeako Udalek eta Emaginek antolatuta, *Zaintza lanen demokratizaziorantz* jardunaldien lehen eguna:

17:30ean, harrera.

18:00etan, Matxalen Legarreta, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen *Zaintzak erdigunera. Zertaz ari gara?* hitzaldia.

19:00etan, Beterrri-Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamenaren aurkezpena.

Izena ematea, alde zurretik. Horretarako, telefonoz deitu daiteke 943 59 09 02 zenbakira, edo emagin.eus web orrian formulario bat bete.

Milagrosa, 17:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Flamenkoa

Flamenco Abierto ikuskizuna antolatu du Semblante Andaluz elkarteak, FARA E jardunaldien barruan. Eszenatokian Laura Guerra, Christian Martin, Fabiola Santiago, Eduardo Agudo eta Ruben Portillo izango dira flamenkoaren adar ezberdinak erakutsiz. Gonbidapena behar da.

Manuel Lekuona kultur etxean, 19:30ean.

LARUNBATA 24

HERNANI Jardunaldia

Beterrri-Buruntzaldeako Udalek eta Emaginek antolatuta, *Zaintza lanen demokratizaziorantz* jardunaldien bigarren eguna:

10:00etan, Mahai ingurua. Parte-hartzaileak: Radars Barcelona, Maitelan, Trabajadoras No Domesticadas eta Herrilab.

12:30ean, Herri lanen demokratizazioari buruzko herri eztabaida.

Izena ematea, alde zurretik. Horretarako, telefonoz deitu daiteke 943 59 09 02 zenbakira, edo emagin.eus web orrian formulario bat bete.

Biteri kulturetxea, 10:00etatik aurrera.

IGANDEA 25

ASTIGARRAGA Haur antzerkia

Julio Verne idazlearen *20.000 legoa itsaspeko bidaiari* oinarritutako haur antzerkia eskainiko du Txalo



LASARTE-ORIA Zarzuela. Sasibil elkarte lirikoak 'Los Gavilanes' zarzuela eskainiko du. Jacinto Guerreroren musika eta J. Ramos Martinen gidioa duen zarzuela entzutetsua da. Juan Perura joandako indianoa da protagonista. Bere herrira itzultzen da gaztetako amodioaren bila. Herritarrek harrituta hartzen dute berria, hilda zegoela uste zuten-eta. Sarrera, 12 euro. Martxoan antolatutako VIII. Musika Asteko ekintza dugu.

Larunbata 24, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxea.

produzioak. Bost urte baino gehiagoko haurrei zuzendutako lana. Sarrera, haurrek 3 euro; helduek, 6 euro.

Erribera Kulturgunera, 17:00etan.

USURBIL Laburbira

17. Laburbiraren baitan, bederatzi film labur eskainiko dira. Emanaldiaren baitan, zuzendari batekin solasaldia izateko aukera ere izango du. Sarrerak izen-emate bidez banatu dira.

Sutegiko aretoa, 18:00etan.

ANDOAIN Haur antzerkia

Borobil Teatroak *Hansel eta Gretel* Grimm anaien klasikoaren bertsio dibertigarria aurkeztuko dute. Sei urte baino gehiagoko haurrei zuzendua. Sarrera, 4 euro.

Bastero Kulturgunera, 19:30ean.

ASTELEHENA 26

LASARTE-ORIA Bilera

Lasarte-Oriako Udala eta Eusko Jaurlaritzaren La Esperanza auzo elkarteak eta Basaundi bailarako 1-16 portaletako ordezkariak bilduko dira auzoko etxebizitzaren irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko diru laguntzei buruzko informazioa eskaintzeko.

Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusia, 18:30ean.

ASTEARTEA 27

USURBIL Ipuin kontalaria

Ixabel Agirresarobe 4 eta 5 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako ipuin kontaketa egingo du. Gonbidapenak, *usurbilkultura.eus* bidez eskuratu behar dira; haurrak heldu batek lagunduta joan daitezke.

Sutegi udal liburutegia, 18:00etan.

ASTEAZKENA 28

ANDOAIN Ipuin kontalaria

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria *Joxe Moxe kitarraren etxean* kontakutakoak ipuina kontatuko du. 5-6 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako dago. Bi saio eskainiko ditu: 17:00etan eta 18:00etan. Izena udal liburutegian eman daiteke edo 943 300 615 telefono zenbakira deituta.

Udal Liburutegia, 17:00etan eta 18:00etan.

OSTEGUNA 29

USURBIL Ipuin kontalaria

Ixabel Agirresarobe 6 urte baino gehiagoko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa egingo du. Gonbidapenak, *usurbilkultura.eus* bidez eskuratu behar dira; haurrak heldu batek lagunduta joan daitezke.

Sutegi udal liburutegia, 18:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

¡Scooby!

Igandea: 17:00.

ANDOAIN

BASTERO

Explota, Explota

Larunbata: 19:30, 22:15.

Igandea: 19:30.

Astelehena: 19:30, 22:15.

HERNANI

BITERI

En busca de Summerland

Ostirala: 22:30.

Larunbata: 19:30.

Igandea: 19:30.

Astelehena: 16:30.

Zapatos rojos y 7 trolls

Larunbata: 16:30.

Igandea: 16:30.

USURBIL

URBIL

Trolls 2 - Gira mundial

Ostirala: 16:30, 18:00,

18:30, 19:00,

20:30, 21:30.

Larunbata: 16:30, 18:00,

18:30, 19:00,

20:30, 21:30.

Igandea: 16:30, 18:00,

18:30, 19:00,

20:30, 21:30.

Astelehena: 16:30, 18:00,

18:30, 19:00,

20:30, 21:30.

Astelehena: 18:00, 19:00,

20:30, 21:30.

No matarás

Ostirala: 16:50,

19:30, 22:10.

Larunbata: 16:50,

19:30, 22:10.

Igandea: 16:50,

19:30, 22:10.

Astelehena: 18:40, 21:20

Greenland: El

último refugio

Ostirala: 17:00,

19:50, 22:20.

Larunbata: 19:50, 22:20.

Igandea: 19:50, 22:20.

Astelehena: 17:00,

19:50, 22:20.

Akelarre

Ostirala: 17:10,

20:00, 22:40.

Larunbata: 20:00, 22:40.

Igandea: 20:00, 22:40.

Astelehena: 17:10,

20:00, 22:40.

Como perros y gatos: La patrulla unida

Ostirala: 16:00.

Larunbata: 16:00.

Igandea: 16:00.

Astelehena: 17:20.

Eso que tú me das

Ostirala: 15:50, 22:50.

Larunbata: 15:50, 22:50.

Igandea: 15:50, 22:50.

Igandea: 15:50, 22:50.

Astelehena: 16:25:0.

Padre no hay más que uno 2

Ostirala: 16:20,

19:20, 22:00.

Larunbata: 16:20,

19:20, 22:00.

Igandea: 16:20,

19:20, 22:00.

Astelehena: 17:30, 20:10.

Pinocho

Ostirala: 16:10, 19:10.

Larunbata: 16:10, 19:10.

Igandea: 16:10, 19:10.

Astelehena: 17:40.

Tenet

Ostirala: 21:00.

Larunbata: 21:00.

Igandea: 21:00.

Astelehena: 21:00.

Cars 3

Larunbata: 17:15.

Igandea: 17:15.



LABURPENEA

¡Scooby!

Zuzendakariak: Tony Cervone. **Gidoilariak:** Kelly Fremont, Craig Istorio. **Musika:** Junkie XL. **Muntaia:** Ryan Folsy. **ekoizleak:** Warner Bros. Brazil, Warner Animation Group, Reel FX Creative Studios, Hanna-Barbera Productions, CPTC. **Herr:** AEB (2020). **Iraupena:** 94 minutu.

Adiskidetasunaren hasiera

¡Scooby! animaziozko filmaz gozatuko dute etxeko txikiak, haur zinema atalean.

Scooby Doo eta bere lagunak abentura berri honetan taldearen sorrera erakusten du.

Shaggy Rogers haurrak Scooby kaleko txakurarekin egiten du topo eta adoptatzen du. Halloween gauean bikoteak Fred Jones, Daphne Blake eta Velma Dinkleyekin bat eginez etxe sorgindu batera sartzen dira eta bere lehen kasua argitzen dute. Geroztik, *Mystery Inc.* izena jartzen diote taldeari.

Hamar urte geroago, *Misterioaren makina*, euren furgoneta mitikoan igota, guztiak batera Cerberus txakur mamua askatzeko konplota zapuzten saiatuko dira.

Abentura horretan Scoobyk etorkizun epikoagoa duela ohartuko dira.

Filmean Hanna-Barbera unibertsoko beste pertsonaia batzuk ikusteko aukera ere izango da, hala nola, Dee Dee Skyes, Dinamita txakur miragarria, Belatz Urdina edo Pier Nodoyuna eta Patan txakurra.

Lasarte-Oria Bai!

25. urteurrena, 2021ean

2020. urteko urriko azken igandea arraroa izango da, hotzagoa, eta ez tenperaturagatik. Urteko egun berezietako bat bizi gabe geratuko da herria, halabeharrez, COVID-19ak eragindako egoera tarteko. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa urtebete atzeratzea erabaki du Ostadar SKTk, ondo bidean, 2021ean "lasterketak merezi duen bezala" ospatzeko

Txintxarri

Larunbat gauean ordua aldatuta utzi, badaezpada ere, hurrengo eguneko goizeko krosera dagokion orduan iristeko. "Udazkeneko ordu aldaketa, krosaren igandean", herritar askok barneratua duten esaldia. Aurtengo urriko azken igande hau desberdina izango da, baina berezia ez, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa jokatu ez delako, COVID-19a tarteko. 25 urte beteko zituen helduen lasterketak, eta hogeitaz Kros Txikiak. Tarta izozkailuan sartu eta 2021eko urrian aterako dute antolatzaileek, ondo bidean, orduan bai, kandela mordo hori itzali eta herriko kaleak beste behin giro ederrez, kiroltasunez eta kolorez betetzeko.

Irail erdialdean jakinarazi zuen erabakia Ostadar SKTk: egoera ikusita, ezinezkoa zela krosa herri guztiak ezagutzen duen moduan antolatzea. "Ezin dugu lasterketak merezi duen ospakizun festa antolatu; ez kirol arloan, ezta arlo sozioekonomikoan ere". Kirol ekitaldi bat baino gehiago baita Lasarte-Oria Bai! krosa; herriko merkataritzari

bultzada ematea izan da helburuetako bat 1996. urtetik. Txintxarri aldizkariako kazetariontzat ere arraroa izango da 2020ko urriko azken igandea. Gustura kubritzen dugu herriaren egunerokoa, baina krosa da xarma berezia duten ekitaldi horietako bat. 2017. urtean, Diario Vasco Txema Valles kazetariarekin batera, 1 dortsala soinean genuela lasterka egin genuen! Egun ahaztezina izan zen guretzat. Eskerrik asko benetan!

Artikulu hau idazteko, nostalgia apur batekin, hartu dugu 1996. urteko urtekaria, gogoratze nola kontatu genuen Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoien aurreneko

edizioaren etorrera. *Baietz ba, 10 kilometro korrika aixa!* titulatu zuen kirol ekitaldia jokatu aurreko artikulua Idoia Garzesek, lasterketaren izaera nabarmenduz: kirol herrikoa garatzea eta indartzea, edonork zapatilak jantzi eta korrika egitera ateratzeko aukera emanez, helmuga lehen postuan zeharkatuz edo eskobako lagunekin batera iritsiz. Hurrengo urteetan zehar, zapatilaz gain, herriko kaleetan barrena ikusi ditugu ere gurpildun aulkiak, patinak eta ipar martxako makilak, probak hartu duen dimentsioaren seinale. Dimentsio horren lehen adibidea, duela ia 25 urtekoa: lehen edizioan 684 pertsonak parte hartu zuten, antolatzaileek 500 inguru espero zituztenean, Aitor Azkonobietak krosaren osteko *Hamar kilometro gogoz korrika!* izenburudun kronikan nabarmendu zuen bezala.

Maratoia eta krosa, asteburu berean

1996ko aldizkariak irakurriz ikusi dugu urte horretan asteburu berean Euskararen IV. Maratoia eta Lasarte-Oria Bai! krosa *jokatu* genituela. 40 ordu euskaraz jo eta egitearekin aski ez, eta hamar kilometroz lasterka egiteko ere indarrak izan zituzten lasarteoriarrek. Aurtengo urtean, berriz, asteburu berean izan ez arren, ezin izango dugu ez batzaz eta ez bestez gozatu, pandemia tarteko. Espero dezagun 2021ean egin, irakurri eta ikusi ahal izatea krosari buruzko kronika, argazki galeria, bideo eta elkarrizketak. Krosa bititzea baino, gogoratzea dagokigu aurten.



Lasarte-Oria Bai! krosaren lehen edizioaren aurkezpen prentsaurrekoa, 1996an. TXINTXARRI



Kros Txikia 2001. urtean jokatu zen aurreneko. Irudian, irteera Okendotik. TXINTXARRI



Kirolaz gozatzeko eguna izan ohi da krosaren igandea. TXINTXARRI



Txintxarri aldizkariak pozarren jantzi zuen 2017ko 1 dortsala, Diario Vasco Txema Valles kazetariarekin batera. Egun ahaztezina! TXINTXARRI

